


Napoleonen derrota ikusi zuen Waterloo-ko erasoaren kontakizunak historiaren zentzuari buruzko erreflexiorako aukera ematen dio Hugori. 1789ko iraultza, 1793ko iraultza deitu beharko genukeena, historia unibertsalaren momentu erabakitzailea da Hugoren aburuz. Kontra-iraultza ez da, beraz, pendulu mugimendu soila, denboraren mugimendua berreskuratzeko ahalegina baizik. Itxuraz porrotera zuzendua dago. Izan ere, ideologia progresistan oinarrituriko historiaren probidentzia-ikuskeran, berreskurapen hori ezinezkoa da. Kontra-iraultzak (Waterloo-k) iraultzak duen onena goستن du: askatasuna.

Urrikalgarriak, Bigarren zatia, 1. liburukia, 17. atala, «Onuragarria izan ote zen Waterloo?».

“Waterlook, Europako tronuak ezpataz birrintzeari amaiera emanez, iraultzaren lana segiaraztea beste ondoriorik ez zuen eduki, bestalde. Ezpatariak finitu dute, pentsalarien aldia da. Waterlook geldiarazi nahi zuen mendeak gain hartu zion, eta bere bidea jarraitu zuen. Garaipen deitoragarri hau askatasunak garaitu zuen. (...)

Ez dezagun Waterloon ikus Waterloon dagoena besterik. Askatasun asmorik, fisik ez. Kontra-iraultza gogoz bestera zen liberala, antzeko fenomeno bat zela medio Napoleon gogoz besteko iraultzailea zen bezala. 1815eko ekainaren 25ean, zaldi-zelatik behera bota zuten Robespierre.”

1873



1873, Victor Hugo, E. Carjaten eskutik. © Roger-Viollet.

Waterloo-ko eraso, Urrikalgarriak lanean, Hugok kontakizun bezala ukitzen duen gertakari haundiaren adibide bakarra da. Pasartearen konklusiozko kapituluaren izenburua ondorengoa da: Faut il trouver bon Waterloo? (Ona izan al zen Waterloo-ko emaitza?). Hugoren elaberriak ez dira, beraz “tesi” elaberriak. Kontakizunak analisiari bidea irekitzen dionean autoreak parte hartzen du, irakurlea balitz bezala. Bere ahotsa beti ere identifikagarria izateaz ziurtatzen da. Bidezkoa izango litzateke pertsonaia honen edo bestearenak diren hitzak bere ahoan ez jartzea.

HISTORIA

28

Azken esaldiak zalantza uzten du Konbentzioaren inguruan Hugok zuen iritzari buruz. Robespierre eta Napoleonek eskema probidentzialetik ezabatuak dirudite. Zenbat eta militar gehiago, orduan eta terrore handiago. Bigarren inperioko kontra-iraultzako erregimena erortzen denean, Hugok gai hau aztertzen du bere azken elaberrian, Larogeita Hamairun. Hugok uko egin dio bere elaberriei elaberri historiko deitzeari. Honela, historia eleberriaren fabulaziorako dekorazio bezala erabiltzen zuten Walter Scott eta bere frantziar imitatzaileretik baztertzea lortu nahi zuen. Hausnarketa historikoa, Hugorentzat, ekintzaren motorea eta gaur egunaren argigarria da.

“Konbentziotik sortu ziren hamaika mila eta berrehun eta hamar dekretuarik, herenak helburu politikoa du, bi herenek helburu humanoa dute. Moral unibertsala aldarrikatu zuen. Legearen oinarria. Eta hori guztia, morrontza abolitu, haurridetasuna aldarrikatu, gizateria zaindu, giza-kontzientzia zuzendu, lanaren legea eskubide bihurtu eta zama izatetik onura izatera ekarri, nazioaren aberastasuna sendotu, haurreria argitu eta babestu, letrak eta zientziak zabaldu, gailur guztietan argi egin, miseria guztiak sokorri, printzipio guztiak ezarri, Konbentzioak erraietan Vendée herensugea zeukala egin zuen, eta lepoan tigre horiek, erregeak.”

Laurogeita hamairu, Bigarren zatia, 3. liburukia, 1. atala, 1873ko otsaila.